

3. Aita Intzak dasa: Iruñako euskal-apaiz gayak *Erizkizundi-Irukoitzaren* 6 gutun bete dituztela eta zerbaitez ordaindu bear zaiela lan au. Ordañez gutun batzuek urerik bidaliko zaie.

4. Estenaga, Ciudad Real'go apezpiku euskaldunak Euskaleñiko ikastolen alde Madrid'en zerbait egin lezakela-ta oretzaz Euskaltzaindiak itz egin du bañan ez du ezer garbi ta zeatz erabaki.

5. Ezkutitz asko irakuñi dira ta oien artean Azpeitiko Udalarena, esanik, Etxegarai euskaltzain aukeratuaren sañerako al dan guzia gertuko duela.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Epaila'ren 27'an.

Batzaraldi ontara euskaltzain abek datoz: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Altube, Eguskitza, Lakonbe ta Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Euskaltzainburu jaunak iragartzen die beste euskaltzañai gure urgazle dan Kosme Elgezabal jaunak alegin egiten duela Durangon ango aberatsak berotzen, zerbaiten sorospide Euskaltzaindiari eman dezaioten. 300 peseta sorospidetzat etofi zaizkio Elgezabal jaun oren bitartez.

2. Badakite euskaltzañak Amerikara ezkutitz asko biali zirala, ango euskal-aberatsak ere, gai ontan, zerbait zuzpeltu naiez. Sanperio jaunak igorítako izen-leñoz zuzendu dira eskutitz oiek.

3. Apaiz-gaien bilguma bat sortu da Gazteizko apaiz-gaien ikastetxean. Izentzat *Kardaberaz* darama. Bilguma oñen zuzendariak idatzi dio Euskaltzaindiari, esanik: Bilguma-araudiz euskal-idazle-batzaldi bat urtero egitea agintzen dala ta auxe betetzeko on litzaio-kela Euskaltzaindiaren sari bat izatea, beronek idaz-gaya aukeraturik.

Erantzun bear zaio: gaya *Kardaberaz* bera izan litekela, bañan oraingoz, Euskaltzaindiak ez diola sari txiki bat baño emango.

4. Lakonbe jaunak irakuri du bere lan egoki ta edera: «Ohienart-en atzotizetan eta neurtizetan hatzemaiten diran aditz azkarak».

5. Berdin ere Kanpion jaunak bere lan sakona: «El vascuence y la lengua ibérica».

6. Azkue jaunak bere *Morfología verbal*.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Epaila' ren 28'an.

Aurako batzaraldian aipatzen diran euskaltzain berak bildu dira, Azkue maipuru dutela.

1. Urkijo, Kanpion eta Azkuek asi-ta, autu bat izan da euskaltzain artean; auxe gai: euskerak izan ote dituen edo ez erderak ainbat aldakuntza. Luze ta ederki itz egin da onetzaz ta bakoitza bere iritxian gelditu da.